



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko irailaren 14a

101. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### C SAILA:

##### **Bestelako proposamenak:**

—Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa. Diputatuen Kongresuko defentsa (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Interpelazioa, LGTBI+ eskubideetan aurrerabidea egite aldera Nafarroako Berdintasunerako Institutuak baliatuko duen politika orokorrari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Volkswagenek Martorellen daukan plantari ematen dion tratamendu bera eman diezaion, ibilgailu elektrikoari dagokionez, enpresa horrek Nafarroan duen plantari. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan gidariaren ezarpena azkartu dezan, Leringo Edateko Uren Araztegia erai-kiz, eta Ega ibai bazterreko herriak Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemara lotzea aurreratu dezan, Egaren adarraren berrastea aprobeztatuta. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua aldatzeko foru lege proiektua bat igor dezan, zerbitzu ematen hiru urte baino gehiago daramaten aldi baterako lan- eta administrazio-araubidez kontratatutako langileei dagokienez. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da populazioaren azterketa xehatua diseina eta gauzatu dezan, sexu-prestakuntzari eta -hezakuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko. Osasun Batzordean izapidetzea (9. or.).
- Erabakia, 1978ko Sanferminetan Iruñean izandako gertakariak direla-eta Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiak berresteari, Sekretu Ofizialei buruzko 1968ko Lege frankista indargabetzeari edo aldatzeari eta martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea garatzeari buruzkoa. Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Afganistanen ezarritako erregimen talibana. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, aisialdiaren arloko titulazioei buruzko araudia egokitzeari buruzkoa. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea (11. or.).

—Galdera, Hezkuntza Departamentuaren ENCLAVE ikasgelen proiektu pilotuari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (11. or.).

---

**C saila:**  
**BESTELAKO PROPOSAMENAK**

---

**Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa.**

*DIPUTATUEN KONGRESUKO DEFENTSA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen Lege proposamena Diputatuen Kongresuan defendatuko duten foru parlamentariak izendatzeko proposamenak egin dituzte Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak, zeinak ekimenaren sustatzaileak baitira, bai eta Eledunen Batzarrak ere. Horri dagokionez, Konstituzioaren 87.2 artikuluan eta Mahaiaren 2005eko ekainaren 6ko Erabakia-

ren bidez onetsiriko arauetan xedatutakoarekin bat, ERABAKI DA:

**1.** Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen Lege proposamena Diputatuen Kongresuan defendatzeko honako foru parlamentari hauek izendatzea:

Pablo Azcona Molinet jauna.

María Luisa de Simón Caballero andrea.

Mikel Buil García jauna.

**2.** Erabaki hau Diputatuen Kongresuko Mahairi igortzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea (10-19/PRC-00003).

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Interpelazioa, LGTBI+ eskubideetan aurrerabidea egite aldera Nafarroako Berdintasunerako Institutuak baliatuko duen politika orokorrari buruzkoa.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko interpelazioa, LGTBI+ eskubideetan aurrerabidea egite aldera Nafarroako Berdintasunerako Institutuak baliatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Interpelazioa, LGTBI+ eskubideetan aurrerabidea egite aldera Nafarroako Berdintasunerako Institutuak baliatuko duen politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Volkswagenek Martorellen daukan plantari ematen dion tratamendu bera eman diezaion, ibilgailu elektrikoari dagokionez, enpresa horrek Nafarroan duen plantari.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Volkswagenek Martorellen daukan plantari ematen dion tratamendu bera eman diezaion, ibilgailu elektrikoari dagokionez, enpresa horrek Nafarroan duen plantari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Volkswagen Navarrak foru erkidegoarentzat duen garrantzia ukalezina da. Alemaniako marka hori, Iruñean 1984az geroztik duen plantaren bidez, lanpostu gehien sortzen duen enpresetarikoa bat da, bai zuzenean bai zeharka, eta berari

esker ibilgailuari lotutako muntako industria osagarria ezarri da gure erkidegoan, eta horrek, aldi berean, eragin oso positiboa izan du azken hamarkada hauetan Nafarroak herritarrentzako zerbitzurik onenak izan ditzan.

Volkswagen Navarra, gainera, beti nabarmendu da lehiakorra izateagatik; halatan, VW taldeko plantarik lehiakorrenetako bat da, hainbeste non sariak ere jaso baititu ibilgailuaren sektorean Europako fabrikarik onenetariko bat izateagatik. Beraz, Nafarroan den-denok egin dezagun planta horren etorkizunaren aldeko apustu garbia.

Ibilgailuaren merkatuaren etorkizuna elektrifikazioari loturik dago inondik ere, eta Europako funtsek norabide horretan aurrerabidea egiteko balio behar dute.

Nafarroa ezin da apustu horretatik kanpo gelditu, eta erakunde guztiek egin behar dute indarra norabide horretan, merkatuaren eraldaketa horrek ez dezan eragin negatiborik eduki Volkswagenen plantak (eta, zeharka, industria osagarriak) sortutako enpleguan.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Volkswagenek Martorellen daukan plantari ematen dion tratamendu bera eman diezaion, ibilgailu elektrikoari dagokionez, enpresa horrek Nafarroan duen plantari.

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

**Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Hiri erabile-  
rako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan gidaria-  
ren ezarpena azkartu dezan, Leringo Edateko Uren Araztegia eraikiz,  
eta Ega ibai bazterreko herriak Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemara lo-  
tzea aurreratu dezan, Egaren adarraren berrastea aprobetxatuta.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzar-  
rari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu  
zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan gidariaren ezarpena azkartu dezan, Leringo Edateko Uren Araztegia eraikiz, eta Ega ibai bazterreko herriak Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemara lotzea aurreratu dezan, Egaren adarraren berrastea aprobetxatuta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztzen du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren 2019tik 2030era bitarteko plan zuzendariaren ezarpena azkartu dezan, Leringo Edateko Uren Araztegia eraikiz, eta Ega ibai bazterreko herriak Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemara lotzea aurreratu dezan, Egaren adarraren berrastea aprobetxatuta.

Ega ibaiak urteak daramatza akidura-zantzuak adierazten klima-aldaketagatik, baina batez ere iturburuetatik zuzenean egiten diren ur-erazketengatik, edo Lokizko akuiferoeko putzuetatik egindakoengatik, Estellerriko herri asko hornitzeko. Jakina, ez gaude erazketa horien aurka, baina estrategia alda dadin nahi dugu, ekonomiaren eta

ekologiaren ikuspuntutik beste alternatiba jasangarriagoak bila daitezen eta, aldi berean, kontsumo jasangarriagoak lortzeko ahalegina egin dadin, hornikuntza- eta saneamendu-zerbitzu egokiekin, oinarrizko eskubide unibertsala baita. Edateko Uren Araztegia aurretik garatzeak klima-aldaketaren aurkako borroka sustatuko du, uren arloko ekonomia zirkularren aldeko apustuak garapen ekonomiko eta soziala lagunduko du, giza osasuna zainduko du eta gutxienean utziko du ekosistemekiko inpaktuak.

Uren ziklo integralaren 2019ko maiatzaren 8ko plan zuzendariak honako hau dio:

“Ega ibaiari dagokionez, etorkizuneko kontsumo-balioespenak zuzendu dira, industria-zuzkidurak sartu baitira, eta aurreratu egin da denboran Nafarroako Ubidearekiko konexioa, zeina 2024tik 2027ra bitarte egingen baita, halako moduan non Mendazan Lokizko akuiferoeko erazketa murriztuko baita urtean 3,81 hm<sup>3</sup>-ra eta Antzingo putzuko abandonatuko baita. Estellerria hornitzen duten Ebroko putzu alubialei dagokionez, beren erabilera osatuko duten ustiapen-planak egin beharra ezartzen da, kalitate txikiagoko urak behar dituzten erabilerak hornitzeko, hartara ekidinen baita Lokizen gaineko presioa handiagoa izatea eta bermatuko baita erreserba modura erabili ahal izatea lehorre-kasuetan”.

Esan bezala, Ega ibaia arrisku ekologikoan dago, eta akuiferoaren gehiegizko erabilera eta klima-aldaketa aintzat hartuta urgentea da neurriak hartzea Ega ibaiaren erregulazioari eta ingurumen-jasangarritasunari begira.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Gobernua premiatzea Hiri erabile-  
rako uraren ziklo integralaren plan gidariaren ezarpena azkartu dezan, Leringo Edateko Uren Araztegia eraikiz, Nafarroako ubidearen Egako adarraren berrastea aprobetxatuta, eta REACT funtsak erabil ditzan hura betearazteko.

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

**Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua aldatzeko foru lege proiektu bat igor dezan, zerbitzu ematen hiru urte baino gehiago daramaten aldi baterako lan- eta administrazio-araubidez kontratatutako langileei dagokienez.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua aldatzeko foru lege proiektu bat igor dezan, zerbitzu ematen hiru urte baino gehiago daramaten aldi baterako lan- eta administrazio-araubidez kontratatutako langileei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko irailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 2021eko irailaren 16ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Estatuko Aldizkari Ofizialaren 161. zenbakian, 2021eko uztailaren 7koan, uztailaren 6ko 14/2021 Errege-Lege dekretua argitaratu zen, Enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurri urgentei buruzkoa.

Arau hori onetsi aurretik, zenbait bilera egin zituen Administrazio Publikoaren Konferentzia Sektorialak (Estatuko Administrazio Orokorren, autonomia-erkidegoetako administrazioen eta toki-administrazioaren administrazio publikoaren arloko lankidetzarako organo politikoa), bai eta Enplegu Publikoa Koordinatzeko Batzordeak ere, Konferentzia Sektorialaren lankidetzarako organo teknikoa baita, zeinak aztertu eta analizatu baitu Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren

Legearen testu bategina (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) aldatzeko arau-proposamena. Aipatu beharra dago, era berean, Espainiako Gobernuaren eta CCOO, UGT eta CSIF sindikatuen artean Administrazio Publikoen 2021eko uztailaren 6ko Negoziazio Mahai Orokorrean lortutako akordioa.

Errege Lege-dekretu horrek honako hau bilatzen du atarikoan aipatzen den bezala:

«bitarteko langileen figuraren aldi baterako izaera indartzea; bitarteko langile izatera iristeko prozedurak argitzea; langile horiek lanpostua uzteko arrazoiak objektibatzea eta erantzukizun-araubide bat ezartzea, etorkizuneko ez-bete-tzeetarako mekanismo proportzional, eraginkor eta disuasiokoa izan dena, eta, gainera, egungo erregulazioak sor dezakeen interpretazio-hutsune edo -zalantza oro argitzea ahalbidetuko duena».

Aipatutako 14/2021 Errege Lege-dekretuak nabarmentzen ditu Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen arloan Nafarroak dauzkan eskumenak, zeinen araupetze orokorra ezarrita baitago Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan. Estatutu horren testu bategina abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Nafarroari buruz egiten den aipamen bakarra aitzinsolasean agertzen da, ez arauen testuan, eta honako hau dio:

«Azken xedapenetatik bigarreanean langile baliokideak aipatzen dira, estatutupeko langileei dagokienez, eta aipamen hori 2021erako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legearen 19. bat 3 artikuluan jasotakoaren berdin-berdina da. Bada, aipamen hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko langileei dagokiela ulertu behar da, Nafarroako Osasun Zerbitzuko, Osasun Departamentuko eta hari atxikitako edozein erakundetako langileei, eta, beraz, osasun-sistema nazionalako langileei, zeinak, foru erkidego honen kasuan, batez ere funtzionarioak baitira».

Errealitatea da, gaur egun, eta hainbat txostenetan argitaratutako datuen arabera, Nafarroak behin-behinekotasun tasa handia duela bere administrazio publiko guztietan, batez ere Hezkuntzan eta Osasunbidean. Datu horiek agerian uzten dute oso urrun gaudela behin-behinekotasuna % 8ra murrizteko helburutik, zeina baita Europar Batasunak eskatzen duena.

Nafarroako administrazio publikoetako lan-prekarietatearen maila ezin onartuzkoa izan da azken urteotan administrazio modernoa, efizientea eta Europako ingurune batean integratua edukitzeko. Izan ere, Europak duela hogeita bost urte baino gehiago adierazi zuen, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/70/EE Zuzentarauaren bidez, lanaren behin-behinekotasuna saihestu eta enplegu-egonkortasunerako eskubidea babestu nahi zuela. Zuzentzari hori iraupen jakinako lanari buruzko CESen, UNICEren eta CEEPren Esparru Akordioari buruzkoa da, eta enpleguan egonkortasunerako eskubidea aldarrikatzen du. Bada, eskubide hori «langileak babesteko osagai ezin garrantzitsuago baten» moduan jasotzen da, eta debekatu du langile publikoen aldi baterako kontratazio jarraituetan gehiegikeriak egitea, eta gertatzen diren gehiegikeriak zigortzera behartzen ditu estatu kideak; horrela, abusuaren biktimak konpentsatu behar dira zehapen-neurri eraginkor, proportzional eta disuasioko batez, zeinak aldi baterako langile publikoak babesteko bermeak jaso, Batasuneko Zuzenbidea urratzearen ondorioak ezabatu eta Zuzentzarauak ezarritako emaitzak une oro bermatuko dituen.

Kontuan izan behar da, halaber, aldi baterako kontratupeko langileek erreklamazio judizialak jarri dituztela, eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak bere jarrera azaldu duela behin baino gehiagotan. Aipamen berezia merezi du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2020ko martxoaren 19ko epaiak, zeinak adierazi baitu administrazioek ez dutela ezarritakoa bete, eta neurriak hartu behar direla indarrean dagoen araudia betearazteko. Epai hori jauzi kualitatibo bat izan zen, aldi baterako kontratazioaren gehiegizko erabilera zehazten duten parametroak definitzen dituelako: urte jarraituak langile egonkorren jarduera normalari dagozkion zerbitzuak ematen eta zereginak egiten, aldi baterako kontratazioan benetako iraupen-mugarik ez egotea; administrazio enplegatzailerak ez betetzea aldi baterako langileek diharduten lanpostuak langile egonkorrekin edo

karrerako funtzionarioekin betetzeko betebeharra, hautaketa-prozesuen deialdien bidez

Testuinguru horretan, aipatu behar da, halaber, Auzitegi Goreneko Laugarren Salak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2021eko ekainaren 3ko Epaiaren eragina, hainbat errekurtsotan, aztertzeko osoko bilkuran bildu zenak, aho batez erabaki duela bere doktrina propioaren aplikazioa zuzentzea, sektore publikoan lanpostu hutsak betetzeko bitarteko kontratuaren iraupenari dago-kionez. Kontratu horri buruzko lege- eta erregelamendu-aurreikuspenak aplikatuz, gehieneko iraupena —doktrina jurisprudenzial berri horren arabera— lanpostu hutsa betetzeko hautaketa-prozesuek irauten duten denbora izanen da, berriazko lege- edo hitzarmen-araudian xedatutakoaren arabera.

Arau-aurreikuspenik ezean, Auzitegi Gorenak uste du, oro har, hiru urtetik gorako iraupena luze justifikaezintzat jo behar dela, eta horrek berekin ekarriko du bitarteko langilea mugagabe ez-finko bihurtzea. Era berean, adierazi du epe horren zenbaketa ezin dela eten enplegu-eskaintza publikoak geldiarazteari buruzko aurrekontu-arauden ondorioz, bitarteko langileek betetzen dituzten lanpostu hutsak betetzeak ez dakarrelako aurrekontu-gehikuntzarik.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du, bere eskumenak erabiliz, hiru hilabeteko epean eta Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean negoziatu ondoren, foru lege proiektu bat aurkez dezan Parlamentuan, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutua —haren testua abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen— aldatuko duena. Horrekin arautu nahi da Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzura hiru urte baino gehiago daramaten aldi baterako lan- eta administrazio-araubideaz kontratatutako langileen egoera, eta horrela, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/70/EE Zuzentarauaren xedapenak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudenzia kontuan hartuta, administrazio publiko horietan behin-behinekotasuna hiru urteko epean % 8ra murriztuko da.

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da populazioaren azterketa xehatua diseina eta gauzatu dezan, sexu-prestakuntzari eta -hezakuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko.**

### *OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita populazioaren azterketa xehatua

diseina eta gauzatu dezan, sexu-prestakuntzari eta -hezakuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko. Mozioa 2021eko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00013).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia, 1978ko Sanferminetan Iruñean izandako gertakariak direla-eta Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiak berresteari, Sekretu Ofizialei buruzko 1968ko Lege frankista indargabetzeari edo aldatzeari eta martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea garatzeari buruzkoa.**

### *HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetako Batzordeak, 2021eko irailaren 7an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia, 1978ko Sanferminetan Iruñean izandako gertakariak direla-eta Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiak berresteari, Sekretu Ofizialei buruzko 1968ko Lege frankista indargabetzeari edo aldatzeari eta martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea garatzeari buruzkoa".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten ditu 1978ko Sanferminetako gertakariak direla-eta lehenago hartutako erabakiak.

2017ko azaroaren 27ko erabakia, zeinaren bidez Gobernu zentralari eskatzen baitaio desklasifika dezan 1978ko Sanferminetan Iruñean izandako gertakariak direla-eta Barne Ministerioan, Defentsa Ministerioan nahiz bestelako edozein administrazio-instantzia ofizialetan dagoen dokumentazio guztia.

2019ko martxoaren 15eko erabakia, zeinaren bidez babesa ematen baitaio 1978ko Sanferminetan Iruñean izandako gertakariak direla-eta Germán Rodríguez senitartekoei, poliziak balaz zauritu eta lesionatutako zenbait pertsonak, Iruñeko Peñen Federazioak eta Sanfermines-78: gogoan! elkarteak jarritako kereilari.

2. Nafarroako Parlamentuak apustu egiten du Sekretu Ofizialei buruzko 1968ko Lege frankista, oraindik ere indarrean dagoena, premia indargabetzearen edo, kasu bada, nabarmen aldatzearen alde, eta eskatzen du onesten den araudi berria egungo sistema demokratikoaren araberrako printzipioetan oinarritu dadila.

3. Nafarroako Parlamentuak martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea garatu ahal izateko beharrezkoak diren jarduketak egitearen aldeko apustua egiten du, hartara errekonozimendua eta erreparazioa ematen ahalko baitaizkie giza eskubideak urratu zaizkiela-eta biktima direla deklaratzeko diren pertsona guztiei".

Iruñean, 2021eko irailaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Afganistanen ezarritako erregimen talibana.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko irailaren 9an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Irmo gaitzesten du Afganistanen ezarritako erregimen talibana, ez baititu ez giza eskubideak ez gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatzen.

2. Elkartasuna adierazten die herrialde horretan bizi den egoera latza pairatzen ari diren pertsona guztiei; bereziki, atentatuen biktimei, emakumeei, neskatoei eta gainerako errepresaliatu guztiei.

3. Nafarroako Gobernuari eskatzen dio baliabideak jar ditzan, udalekin lankidetzan eta behar adinako finantzaketarekin, erregimen horretatik ihesi gure erkidegora datozen pertsonen harrera emateko, eta eman dezakeen laguntza guztia eskain diezaien.

4. Gobernuak eta Europar Batasuna premia-tzen ditu hartu beharreko neurriak har ditzaten, ziurtatze aldera jazarririk sentitzen diren pertsona guztiek Afganistandik alde egin dezaketela eta inor ere ez dela bere borondatearen aurka bertara itzultzera behartuko.

5. Gobernuak premia-tzen ditu atzerriko agintariekin lankidetzan aritu diren pertsonak handik ateratzeaz gain ahalegin berezia egin dezaten Afganistango gizarteaz azken urteotan eraldatzeko

lan egin duten gizon-emakume guztiak handik ateratzen direla ziurtatzeko; intelektual eta kazetarietara hasi eta gizarte zibileko aktibista eta giza eskubideen defendatzaileekin buka.

6. Premiazkotzat jotzen du, Kabulgo aireportua itxi ondoren, asilo-eskatzailleentzako harrera eta erreskate programa bat ezar dadin, halako moduan non pertsona horiek ez baitira behartuta egonen arrisku eta ziurgabetasunez beteriko migrazio-bideak hartzera eta Afganistandik bertatik nahiz eskualde horretako herrialdeetatik ateratzea erraztuko baita, Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legearen 38. artikulua aplikatuta horretarako, enbaxada eta kontsuletxeetan nazioarteko babes-eskariak aurkeztea ahalbidetzen baititu.

7. Nazioarteko erkidegoa premia-tzen du ez dezan Afganistan abandona eta lan-ildoak irekita mantentzen ditzen, herritar guztien giza eskubideak bermatzeko eta bereziki emakume nahiz neskatu afganiarren bizitza babesteko.

8. Migratzaileen eta errefuxiatuen harrera unibertsaltasun-baldintzetan egiten dela bermatzeko lan egiteko konpromisoa hartzen du, giza eskubideen eta asilo-eskubidearen arloko nazioarteko tratatu eta printzipioetan ezarritakoari jarraikiz.” (10-21/DEC-00053).

Iruñean, 2021eko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, aisialdiaren arloko titulazioei buruzko araudia egokitzeari buruzkoa.**

*LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNeko, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko galdera, Aisialdiaren arloko titulazioei buruzko araudia egokitzeari buruzkoa, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin.

Galdera 2021eko irailaren 7ko 98. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-21/POR-00307).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Galdera, Hezkuntza Departamentuaren ENCLAVE ikasgelen proiektu pilotuari buruzkoa.**

*JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko irailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuaren ENCLAVE ikasgelen proiektu pilotuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko irailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan datza departamentuak abian jarriko duen ENCLAVE ikasgelen proiektu pilotua?

Iruñean, 2021eko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

